



3

TOKI ADMINISTRAZIOA

ERRETERIAKO UDALA

Giza Baliabideak

Erreterriako Udalaren 2024. urterako lanpostu-zerrenda eta langile-plantilaren lehenengo aldaketa.

Udalbatzarrak, 2024ko apirilaren 30eko ohiko batzarrean, besteak beste, honako akordioa hartu zuen, beti ere akta onartzerakoan sor litezkeen aldaketen baitan:

Lehenengoa. Udal honetako lanpostuen zerrenda aldatzea ondorengo eran:

- Sortzea Giza Baliabideetako erdi mailako teknikari postuaren bigarren dotazioa (2409.2 kodea).
- Hirigintza, Ingurumen eta Jasangarritasun departamentuko lanpostuak zuzenean departamentuari atxikitzea, eta ez dauden zerbitzuei, Ingurumen eta Jasangarritasun zerbitzuko lanpostuak izan ezik, orain dauden bezala mantentzen baitira.
- Ingeniari teknikoaren dedikazio berezia mantentzea (LZko 5233.1 kodea) 2024-12-31 arte.
- Balio anitzeko operari lanpostu berri bat sortzea (5391.1 kodea), Ondare eta Zerbitzuen Ikuskaritza zerbitzuan kokatua eta, lehentasunez, bigarren jarduera bati zuzendua. LZko lanpostuaren betebeharrak brigadako operari lanposturako ezarritakoak berak dira (5253 kodea).
- Udaltzain lanpostuetan (LZko 7107 eta 7108 kodeak) parte hartzeko aukera ematen duen administrazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Udaltzaingoko agenteei irekitzea.
- Ogasuna eta garapen ekonomiko goi-mailako teknikari lanposturako eskatzen den titulazio akademikoa aldatzea (Lanpostuen Zerrendako 3013.1 kodea). Aurrerantzean, honako hau izango da:
— Taula literalaren 600 kodea: Unibertsitateko graduaren titulazioa edo baliokidea (608 kodearen orde).

7. Zuzentzea aholkulari juridiko lanpostuak (LPZko 5155.1 kodea) duen dedikazio motaren 1etik 2ra, dedikazio berezia ezarrita baitu (ordainsarien kopurua zuzena da).

Bigarrena. Udal honetako langileen plantila aldatzea ondorengo eran:

A) Ondoko lanpostuak sortzea:

1. Funtzionarioak:

— Administrari bat, C1 sailkapen taldekoa eta Administrazio Orokorreko eskalakoa, Administrari azpieskalakoa.

— Erdi mailako teknikari bat, A2 sailkapen taldekoa eta Administrazio Bereziko eskalakoa, azpieskala Teknikokoa eta Erdi Mailako Teknikarien klasekoa.

— Operari bat, PT sailkapen taldekoa eta Administrazio Bereziko eskalakoa, Zerbitzu Berezien azpieskalakoa eta Ofizioko Langileak klasekoa. Aldi berean, dotazio gabe utzi lanpostua aurrean.

Hirugarrena. Langile-plantilan egindako aldaketa argitaratzea Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta 15 egun uztea erreklamazio eta iradokizunak egiteko. Epe horretan inork ez balu erreklamaziorik egingo, egindako aldaketa behin betiko egintzat joko litzateke.

Laugarrena. Lanpostuen zerrendako aldaketa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea. Plantillako lanpostuak sortzeak ekartzen dituzten aldaketek aurreko puntuan aipatzen den plantillako aldaketa behin betiko onetsizat jotzen den unetik izanen dituzte ondorioak. Gainerako aldaketek argitaratzen direnetik izanen dituzte ondorioak.

Horrenbestez guztien ezagupenerako jakinarazten dut.

Errenteria, 2024ko maiatzaren 2a.—Alazne Korta Zulaika, Antolaketako ordezkaria.
(3243)